




Afiliazio maximo berria Euskadin urrian

Gizarte Segurantzako afiliazioa Urte bakoitzeko urria. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Urrian, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,1 hazi zen Euskadin, aurreko urteko aldi beraren aldean. Gorakada horrek beste maximo historiko bat ekarri du, 1.031.000 afiliatu baino gehiago baitaude. Afiliazioa berdin hazi zen emakumeen zein gizonen artean (%1,1).

Erregistratutako langabeziak beheraka jarraitzen du

Erregistratutako langabezia Urte bakoitzeko urria. Milakoak



Iturria: Lanbide


Urrian, Lanbiden erregistratutako langabezia %0,8 jaitsi zen, aurreko urteko hil beraren aldean. Jai-tsiera berri horrekin, hamahiru hila-betez jarraian behera egin du urte batetik bestera. Langabeen guztizko kopurua 108.000tik beherakoa izan zen. Hau da 2008tik gaur egun arte urrian erregistratutako daturik baxuena.



Industriaren produkzioa %0,8 murriztu zen Euskadin

Industria produkzioaren indizea (IPI)

Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **Euskadiko industriaren produkzioa %0,8 murriztu zen irailean aurreko urteko hil beraren aldean**. Indizearen osagai guztiek parte hartu zuten jaitsiera horretan, kontsumo ondasun iraunkorrek eta energetikoek izan ezik, %12,3 eta %4,2 hazi baitziren, hurrenez hurren.

Txikizkako merkataritza %3,8 hazi zen Euskadin

Txikizkako merkataritza Euskadin

Hirugarren hiruhilekoa. Indizea



Iturria: Eustat

Eustaten datuen arabera, **Euskadiko txikizkako salmentak %3,8 hazi ziren urte batetik bestera 2025eko hirugarren hiruhilekoan**. Automobilgintzarako erregaiek (%10,5) izan zuten hazkunderik handiena. Elikagaiak eta beste produktu batzuk berri, %3,0 eta %3,3 igo ziren hurrenez hurren..